

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK

Legebiltzar taldeentzat: Euzko abertzaleak–Nacionalistas Vascos; Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak; Popular Vasco–Euskal Talde Popularra; Ezker Abertzalea; Euzko Alkartasuna; Mixto–Ezker Batua/Berdeak; Mixto-Aralar.

Emendakina: ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuak aurkezturikoa.

ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuok dugun Unibertsitatea ez den Itunpeko Irakaskuntzako sektoreko ordezkariak %84koa da. Aldiberean, Administrazioaren menpeko Irakaskuntza Publikoan azpisektore guztietan (irakasleak, hezitzaileak, zerbitzuetako langileak, Haur Eskola partzuergoa) gehiengo sindikala ordezkatzeko dugun. Hortaz, EAEko Unibertsitatea ez den Irakaskuntza Arautu Osoan dugun gehiengo sindikala oso nabarmena da.

Unibertsitatea ez den Itunpeko Irakaskuntzari lotuz, langile guztion lan baldintzak homologatzeko akordio berri baten negoziazioa aldarrikatzen dugu. Hau da, irakasleen eta irakasleak ez diren langileen lan baldintzak (ordainsariak, lanaldiak, ratioak, eskubide sozialak,...) %100-ra homologatzea, Administrazioaren (Hezkuntza Saila eta Haur Eskola Partzuergoa) menpeko ikastegietako langileek dituztenekiko.

Hiru sindikatuon aburuz helburu hauek lortzeko Euzko Jaurlaritzaren partehartzea eta inplikazioa ezinbestekoa eta saihestezina da. Halaber finantziario eredu berri honen akordioaren oinarrian diru publikoaren erabilera zuzena eta gardena egiten dela ziurtatzeko kontrol publikoa eta demokratikoa egoteari erabat beharrezkoa deritzogu.

Horretarako, akordioan ezarri behar diren kontrol mekanismoen artean, besteak beste, langileen ordezkariak garen aldetik, sindikatuon parte hartzea ziurtatu behar da, ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta betekizunak aukera berdintasunaren, hezkidetzaren eta ekitatearen printzipioen arabera burutzen direla berme gisa.

Dena dela, 2008 eta 2009 negoziazio kolektiborako lehenetsuneko helburuak honako hauek finkatu ditugu: 1993 urtean eskola itunetik

datorren %95 muga duen irakasleen oinarrizko ordainsaria gainditzea, irakasleen eskola lan jardunaldia murriztea, eta irakasleak ez diren langileen eta Haur Hezkuntzako 1. zikloko langileen soldata eta gainontzeko lan baldintzen homologazio prozesua abiatzea.

Beraz zera eskatzen dugu:

2009 urterako eztabaidan eta onartzeko fasean dauden EAEko aurrekontu orokorretan behar diren diru partidak jasotzea edota itundutako irakaskuntzarako ekonomi moduluetan behar diren aldaketak egitea, oraingo egoera gainditzeko eta finantzazio marko berri baten oinarriak ipintzeko xedez.

Zehazki, 2008 eta 2009 urteetako Ekimen Sozialeko Ikastetxeen eta Ikastolen lan hitzarmenetan irakasle eta irakasleak ez diren langileen lan baldintzen parekatzearen aldeko neurriak sartzearrartzuko luketen diru partidak onartzea.

Besteak beste, finantzazio hau zertarako eskatzen dugu:

- Sektore honetako langileen interesak bazterturik ez izateko, ikastetxeetako titulartasunaren arabera.
- 2008ko eta 2009ko lan hitzarmenetan irakasleen ordainsariak %95ko muga gainditzeko.
- Irakasleak ez diren langileen eta Haur Hezkuntzako 1. zikloko langileen soldata igoerak Administrazioaren menpeko langileekiko aldeak murrizteko.
- Eskola lanaldiak murrizteko.
- Ratioak (irakasle/gelako, ikasle/gelako, garbiketan metro karratuak, bazkaltiarrena,...) eta gainontzeko lan baldintzak hobetzeko

Gasteiz, 2008-12-17

